



**INGENIARI TEKNIKOA**  
**INGENIERO/A TÉCNICO/A**

**Lehenengo ariketaren 2. atala**  
Apartado 2 del primer ejercicio

2021-05-14

**ERRETERIAKO UDALA**  
Giza Baliabideak



**AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA**  
Recursos Humanos



**EJERCICIO 1. Puntuación: 2 puntos**

***Tema 4. Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.***

Parte 1: Ámbitos de ordenación urbanística: a los efectos de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, define Área y Sector y señala qué clases de planes los pueden ordenar.

Parte 2: Señala en qué dos categorías o niveles se divide la ordenación urbanística. Enumera las clases de planes en cada uno de los dos niveles de ordenación.



**1. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu**

**4. Gaia. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa**

1. zatia: Hirigintza-antolamendu-eremuak: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen ondorioetarako, definitu area eta sektorea eta adierazi zein plan-motarekin antola daitezkeen.
2. zatia: Adierazi hirigintza-antolamendua zein bi kategoria edo mailatan banatzen den. Zerrendatu antolamendu-maila bakoitzeko planen motak.



**EJERCICIO 2. Puntuación: 1 punto**

***Tema 4. Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.***

Parte 1. Define la red dotacional de sistemas generales

Parte 2. Enumera los elementos que constituyen como mínimo la red dotacional de sistemas generales a establecer por el plan general



**2. ARIKETA. Puntuazioa: 1 puntu**

***4. Gaia. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa***

1. zatia. Definitu sistema orokorren zuzkidura-sarea.
2. zatia. Aipatu plan orokorrak zehaztu beharreko sistema orokorren zuzkidura-sarearen gutxieneko elementuak.



**EJERCICIO 3. Puntuación: 1 punto**

**Tema 11. Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.**

El expediente de contratación en los contratos menores.

Parte 1. Define el concepto de contrato menor

Parte 2. Señala cinco documentos a incluir en el expediente de contratación de un contrato menor



**3. ARIKETA. Puntuazioa: 1 puntu**

**11. Gaia. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena**

Kontratazio-espeditentea kontratu txikietan.

1. zatia. Definitu kontratu txikiaren kontzeptua
2. zatia. Adierazi kontratu txiki baten kontratazio-espeditentean jaso beharreko bost dokumentu





### EJERCICIO 4. Puntuación: 2 puntos

**Temas 14 a 17. Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento Electrotécnico para Baja Tensión**

Determinar si las siguientes afirmaciones son verdaderas o falsas, indicando V (Verdadero) ó F (Falso) en la celda correspondiente. En el caso de que sean falsas, es necesario indicar la razón en la línea inferior.

V ó F

1	Según la ITC-BT-04, Precisan de proyecto las instalaciones de garajes que requieran ventilación forzada de más de 5 plazas de estacionamiento.
2	Verificaciones e Inspecciones. El Organismo de Control que haya realizado la inspección de la instalación emitirá un Certificado que será negativo cuando se haya detectado al menos un defecto grave.
3	En un alumbrado de emergencia, el alumbrado de seguridad entrará en funcionamiento cuando se produzca un fallo del alumbrado general o cuando la tensión de éste baje a menos del 70% de su valor nominal.
4	El alumbrado de zonas de alto riesgo debe proporcionar una iluminancia mínima de 15 lux o el 10% de la iluminancia normal, tomando siempre el mayor de los valores.
5	Protección contra contactos directos. Las partes activas deberán estar cubiertas de un aislamiento que no pueda ser eliminado más que destruyéndolo. Las pinturas, barnices, lacas y productos similares se considera que constituyen un aislamiento suficiente en el marco de la protección contra contactos directos.
6	Entre los locales con riesgo de incendio o explosión, la industria de procesado de madera (por ejemplo carpinterías), está considerada como emplazamiento peligroso de Clase I.
7	En instalaciones especiales como ferias y stands, los grados de protección para las canalizaciones y envolventes será IP4X para instalaciones de interior e IP45 para instalaciones de exterior.
8	En instalaciones con fines especiales como ferias y stands, todos los circuitos de alumbrado además de las luminarias de emergencia y las tomas de corriente de valor asignado inferior a 32A, deberán ser protegidos por un dispositivo diferencial cuya corriente asignada no supere los 300 mA.
9	Para evitar desequilibrios en la red eléctrica, los circuitos exclusivos para la recarga de vehículos eléctricos monofásicos no dispondrán de una potencia instalada superior a los 9200W.
10	Punto de conexión para la recarga de vehículo eléctrico. La altura mínima de instalación de las tomas de corriente y conectores será de 0,6 m sobre el nivel del suelo. Si la estación de recarga está prevista para uso público la altura máxima será de 1,2 m y en las plazas destinadas a personas con movilidad reducida, entre los 0,7 y 1,2 m.



#### 4. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu

**14-17. gaiak. 842/2002 Errege Dekretua, abuztuaren 2koa, behe tentsiorako erregelamendu elektroteknikoa onartzen duena.**

Adierazi ondorengo baieztapenak egia edo gezurra diren, E (Egia) edo G (Gezurra) jarrita dagokion laukian. Baieztapenak gezurra badira, arrazoia adierazi behar da azpiko lerroan.

1	ITC-BT-04 instrukzioaren arabera, proiektua beharko dute aireztapen behartua behar duten eta 5 aparkaleku baino gehiago dituzten garajeetako instalazioek.
2	Egiaztapenak eta ikuskaritzak. Instalazioa ikuskatu duen kontrol-erakundeak ziurtagiri bat egingo du, eta negatiboa izango da gutxienez akats larri bat antzeman bada.
3	Larrialdiko argiterian, segurtasun-argiak funtzionamenduan jarriko dira argi orokorrak etenaldia dutenean edo horien tentsioa balio nominalaren % 70aren azpitik jaisten denean.
4	Arrisku handiko eremuetako argiek ematen behar dute gutxienez 15 luxeko edo ohiko iluminantziaren % 10eko iluminantzia, betiere baliorik handiena hartuta.
5	Kontaktu zuzenen aurkako babesak. Zati aktiboek isolamendu batekin estalita egon beharko dute eta isolamendu hori ezingo da hondatuta besterik kendu. Pinturak, bernizak, lakak eta antzeko produktuak isolamendu nahikotzat jotzen dira kontaktu zuzenen aurkako babes gisa.
6	Sutea edo leherketa izateko arriskua duten lokalen artean, zura prozesatzeko industria (adibidez, zurgindegiak) I. mailako kokaleku arriskutsutzat jotzen da.
7	Azoka eta standak bezalako instalazio berezietan kanalizazio eta inguratzailaetarako babes-graduak izango dira IP4X barneko instalazioetarako eta IP45 kanpoko instalazioetarako.
8	Azoka eta standak bezalako xede bereziko instalazioetan argi-zirkuitu guztiek, larrialdiko argiekin eta 32A baino balio txikiagoko korrante-harguneez gain, babestuta egon beharko dute 300 mA baino gehiagoko korrante esleitua ez duen gailu diferentzial batekin.
9	Sare elektrikoaren desorekak saihesteko, ibilgailu elektriko monofasikoak kargatzeko zirkuitu eskusiboek ez dute 9200W baino gehiagoko potentzia instalatua izango.
10	Ibilgailu elektrikoak kargatzeko konexio-puntua. Korrante-harguneez eta konektoreak instalatuko dira, gutxienez, zoruaren mailatik 0,6 m-ra. Kargatzeko gunea erabilera publikokoa bada, gehieneko altuera izango da 1,2 m eta, mugikortasun urriko pertsonentzako plazetan, 0,7 eta 1,2 m artean.



**EJERCICIO 5. Puntuación: 2 puntos**

***Tema 24. Real Decreto 2267/2004, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Seguridad Contra Incendios en Establecimientos Industriales.***

Define los tipos y detalla las características de los establecimientos industriales en relación con la seguridad contra incendios por su configuración y ubicación en relación a su entorno.



**5. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu**

**24. Gaia. 2267/2004 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasun-araudia onartzen duena.**

Definitu industria-establezimenduen motak eta zehaztu ezaugarriak, suteen aurkako segurtasunari dagokionez, konfigurazioari eta ingurunearekiko duten kokalekuaren arabera.



**EJERCICIO 6. Puntuación: 1 punto**

**Tema 23. CTE Documento Básico SI: Seguridad en caso de incendios.**

Determinar si las siguientes afirmaciones son verdaderas o falsas, indicando V (Verdadero) ó F (Falso) en la celda correspondiente. En el caso de que sean falsas, es necesario indicar la razón en la línea inferior.

**V ó F**

<b>1</b>		En centros comerciales, cada establecimiento de uso Pública Concurrencia en el que se prevea la existencia de espectáculos (incluidos cines, teatros, discotecas, salas de baile, etc.) cuando su superficie construida exceda de 500 m <sup>2</sup> debe constituir al menos un sector de incendio diferenciado, incluido el posible vestíbulo común a diferentes salas.	
<b>2</b>		Un aparcamiento debe constituir un sector de incendio diferenciado cuando esté integrado en un edificio con otros usos. Cualquier comunicación con ellos se debe hacer a través de un vestíbulo de independencia.	
<b>3</b>		En la redacción de un proyecto, para calcular la ocupación, a los efectos de establecer el número de salidas y las dimensiones de los medios de evacuación, deben tomarse los valores de densidad de ocupación que se indican en la tabla 2.1 en función de la superficie útil de cada zona, salvo cuando por parte del Ayuntamiento se asigne una ocupación determinada por el establecimiento de un aforo.	
<b>4</b>		Plantas o recintos que disponen de una única salida de planta o salida de recinto respectivamente. Una de las condiciones que tienen que cumplir es la siguiente: la longitud de los recorridos de evacuación hasta una salida de planta no excede de 25 m, excepto en los casos que se indican a continuación: - 35 m en uso Aparcamiento; - 50 m si se trata de una planta, incluso de uso Aparcamiento, que tiene una salida directa al espacio exterior seguro y la ocupación no excede de 25 personas, o bien de un espacio al aire libre en el que el riesgo de incendio sea irrelevante, por ejemplo, una cubierta de edificio, una terraza, etc.	
<b>5</b>		Condiciones de protección que deben cumplir las escaleras previstas para evacuación. En uso Aparcamiento para evacuación ascendente se admiten las escaleras no protegidas cuando la altura de evacuación de la escalera es menor o igual a 2,80 m.	



## 6. ARIKETA. Puntuazioa: puntu 1

### 23. Gaia. EKT Oinarrizko dokumentua (DB-SI): segurtasuna suteetan.

Adierazi ondorengo baieztapenak egia edo gezurra diren, E (Egia) edo G (Gezurra) jarrita dagokion laukian. Baieztapenak gezurra badira, arrazoia adierazi behar da azpiko lerroan.

#### E edo G

1	Merkataritza gunetan, ikuskizunak egingo diren elkargune publikoko erabilerako establezimendu bakoitzak (zineak, antzokiak, diskotekak, dantza-aretoak, etab.), 500 m <sup>2</sup> baino gehiagoko azalera eraikia badu, gutxienez sute-sektore bereizi bat izan beharko du, areto desberdinetarako atondo komuna barne, baldin badu.
2	Aparkaleku batek sute-sektore bereizita izan behar du beste erabilera batzuk ere badituen eraikin batean badago. Beste horietarako komunikazioa bereizte-atarte baten bidez egin behar da.
3	Proiektu bat idazterakoan, okupazioa kalkulatzeko, irteera-kopurua eta ebakuazio-bitartekoen tamaina zehazteko ondorioetarako, 2.1 taulan ageri diren okupazio-dentsitateko balioak hartu behar dira kontuan, eremu bakoitzaren azalera erabilgarriaren arabera, salbu Udalak okupazio jakin bat ezartzen duenean aforoa zehazteko.
4	Solairuko irteera bakarra edo barrutitik irteteko irteera bakarra duten solairu edo barrutiak. Hau da bete beharreko baldintza bat: solairuko irteerara arteko ebakuazio-ibilbideen luzera ez da izango 25 m baino gehiago, jarraian adierazitako kasuetan izan ezik: - 35 m aparkaleku erabileran; - 50 m kanporanzko irteera segurua duen eta 25 pertsona baino gehiagoko okupazioa duen solairua bada baita aparkalekua bada ere edo sute-arrisku oso txikia duen aire zabaleko espazioa bada, adibidez, eraikin baten estalkia, terraza bat, etab.
5	Ebakuaziorako eskailerek bete beharreko babes-baldintzak. Aparkaleku-erabileran goranzko ebakuaziorako onartzen dira babesik gabeko eskailerak eskaileraren ebakuazio-altuera bada 2,80 m edo gutxiago.



**EJERCICIO 7. Puntuación: 3 puntos**

***Tema 27. Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del Gobierno Vasco y modificaciones posteriores.***

Actividades e instalaciones clasificadas. De acuerdo con la Ley 3/1998,

Parte 1. ¿A qué dos regímenes de intervención administrativa deberán sujetarse con carácter preceptivo y previo a su puesta en funcionamiento y cómo se denominan?

Parte 2. Indica los pasos del procedimiento administrativo de cada uno de ellos

Parte 3. ¿Cuándo se podrá dar inicio a la actividad y bajo la responsabilidad de quién?



## **7. ARIKETA. Puntuazioa: 3 puntu**

**27. Gaia. 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumena babestekoa, eta ondorengo aldaketak.**

Sailkatutako jarduerak eta instalazioak. 3/1998 Legearen arabera,

1. zatia. Administrazioak esku hartzeko zein bi araubideren menpe geratzen dira derrigorrez eta funtzionatzen hasi baino lehen eta zer izen dute?
2. zatia. Adierazi bakoitzaren administrazio-prozeduraren pausoak.
3. zatia. Noiz hasi ahal izango da jarduera eta noren erantzukizunpean?





**EJERCICIO 8. Puntuación: 2 puntos**

***Tema 30. Decreto 213/2012, Contaminación Acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco.***

Se pretende instalar una actividad nueva en suelo urbano residencial susceptible de generar impacto acústico. Se le considera un límite de emisión sonora de 90 dBA. El uso de los locales colindantes es residencial.

Parte 1. Indicar los valores límite de inmisión y de ruido transmitido a locales colindantes, y las exigencias mínimas de aislamiento acústico aplicables a este nuevo foco emisor acústico de acuerdo con las tablas del anexo I parte 2 del Decreto 213/2012.

Parte 2. Indicar qué debe presentar la persona o entidad promotora de dicha actividad, antes del inicio de la actividad, ante la administración correspondiente.



## **8. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu**

**30. Gaia. 213/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoa.**

Bizitegi-erabilerako hiri-lurzoruan jarduera bat instalatu nahi da, eta inpaktu akustikoa eragin dezake. 90 dBAko soinu-emisioaren muga duela jotzen da. Aldameneko lokalen erabilera bizitegikoa da.

1. zatia. Adierazi aldameneko lokaletara transmititutako immisioaren eta zarataren muga-balioa, eta 213/2012 Dekretuaren 2. zatiaren I. eranskineko taulen arabera igorle akustiko berri horri aplikatu beharreko isolamendu akustikoko gutxieneko betekizunak.
2. zatia. Adierazi zer aurkeztu behar duen jarduera hori sustatzen duen pertsonak edo entitateak, jarduera hasi aurretik, dagokion administrazioan.



**EJERCICIO 9. Puntuación: 2 puntos**

***Tema 39. Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las Normas Técnicas sobre Condiciones de Accesibilidad en los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.***

Parte 1. ¿A qué obliga el Decreto 68/2000 en los edificios o instalaciones de uso industrial?

Parte 2: ¿Cuáles son las especificaciones técnicas del diseño y trazado de los Itinerarios peatonales establecidas en el Decreto 68/2000?



**9. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu**

***39. Gaia. 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneetako, espazio publikoetako, eraikinetako eta informazio- eta komunikazio-sistemetako irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.***

1. zatia. Zer betebeharrak ezartzen ditu 68/2000 Dekretuak industria-erabilerako eraikin edo instalazioetarako?
2. zatia. Diseinuko eta trazatuko zer zehaztapen tekniko ezartzen ditu 68/2000 Dekretuak oinezkoentzako ibilbideetarako?



## **EJERCICIO 10. Puntuación: 2 puntos**

***Tema 42. Decreto 17/2019, de 17 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.***

Horario general de cierre de los establecimientos y lugares donde se vayan a celebrar espectáculos y actividades recreativas.

Parte 1. Indicar el grupo, el horario y establecimientos tipo de cada grupo.

Parte 2. Indicar en qué supuestos se incrementará acumulativamente el horario y por cuánto tiempo.

Parte 3. ¿Cuál es el plazo máximo de desalojo?

Parte 4. Indicar el horario de apertura y el periodo de cierre obligatorio para algunos grupos



**10. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu**

**42. Gaia. 17/2019 Dekretua, otsailaren 17koa, Jendurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.**

Jendurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko establezimenduak eta tokiak ixteko ordutegi orokorra.

1. zatia. Adierazi taldea, ordutegia eta talde bakoitzeko establezimenduak.
2. zatia. Adierazi zein kasutan luzatuko den amaiera-ordua metatuz eta zenbat denboran.
3. zatia. Zein da erabiltzaileak irtenarazteko gehieneko epea?
4. zatia. Adierazi taldeen irekiera-ordutegia eta nahitaez itxita egoteko denbora



### EJERCICIO 11. Puntuación: 2 puntos

**Tema 43. Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las Obligaciones de Autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.**

Determinar si las siguientes afirmaciones son verdaderas o falsas, indicando V (Verdadero) ó F (Falso) en la celda correspondiente. En el caso de que sean falsas, es necesario indicar la razón en la línea inferior.

**V ó F**

<b>1</b>		El personal al servicio de las actividades reseñadas en el Anexo I del Decreto 277/2010 no tendrá la obligación de participar, en el plan de autoprotección u otros dispositivos y medidas de autoprotección y de asumir las funciones que le sean asignadas en los mismos.
<b>2</b>		La elaboración, implantación, mantenimiento y revisión del Plan de Autoprotección es responsabilidad del Director del Plan de Actuación en Emergencias.
<b>3</b>		El Plan de Autoprotección habrá de estar redactado y firmado por técnico competente capacitado para dictaminar sobre aquellos aspectos relacionados con la autoprotección frente a los riesgos a los que esté sujeta la actividad, y suscrito igualmente por el titular de la actividad, si es una persona física, o por persona que le represente si es una persona jurídica.
<b>4</b>		El Plan de Autoprotección tendrá vigencia indeterminada y se mantendrá debidamente actualizado.
<b>5</b>		La inscripción en el Registro General de Planes de Autoprotección será voluntaria para los titulares de las actividades, centros o establecimientos incluidos en el Anexo I del Decreto 277/2010.

De acuerdo con el Anexo I del Decreto 277/2010, se debe disponer de Plan de Autoprotección en los siguientes casos:

<b>6</b>		Todas las actividades de Gestión de Residuos.
<b>7</b>		Instalaciones o estructuras cerradas eventuales para actividades de espectáculos públicos y actividades recreativas con capacidad o aforo superior a 200 personas.
<b>8</b>		Establecimiento de uso docente siempre que disponga una altura de evacuación igual o superior a 28 m, o de una ocupación igual o superior a 50 personas.
<b>9</b>		Establecimientos de uso residencial público en los que se desarrollan actividades de residencia o de albergue.
<b>10</b>		Locales destinados a garajes y aparcamiento gestionado con una superficie superior a 500 m <sup>2</sup>



## 11. ARIKETA. Puntuazioa: 2 puntu

**43. Gaia. 277/2010 Dekretua, azaroaren 2koa, larrialdi-egoerei aurre egiteko zenbait jarduera, zentro edo establezimenduren autobabeserako betebeharrak arautzen dituena.**

Adierazi ondorengo baieztapenak egia edo gezurra diren, E (Egia) edo G (Gezurra) jarrita dagokion laukian. Baieztapenak gezurra badira, arrazoia adierazi behar da azpiko lerroan.

### E edo G

1	277/2010 Dekretuaren I. eranskinean aipatutako jardueretan ari diren langileek ez dute derrigorrez parte hartu behar Autobabes Planean edo autobabeseko bestelako gailu edo neurrietan, edo horien arabera dagozkien funtzioak onartu.
2	Larrialdietarako jarduketa-planaren zuzendariaren ardura da Autobabes Plana egitea, ezartzea, mantentzea eta berrikustea.
3	Jarduerak dituen arriskuen aurrean autobabesaz irizpena emateko gai den teknikari batek idatzia eta sinatua egon behar du Autobabes Planak, bai eta jardueraren titularrak ere, pertsona fisikoa bada, edo, pertsona juridikoa bada, hura ordezkatzeko duen pertsonak.
4	Autobabes Planaren indarraldia mugagabea izango da eta behar bezala eguneratuko da.
5	277/2010 Dekretuaren I. eranskinean aipatutako jardueren, zentroen edo establezimenduen titularrek derrigorrez eman behar dute izena Autobabes Planen Erregistro Orokorrean.

277/2010 Dekretuaren I. Eranskinaren arabera, hauek izan behar dute autobabes-plana:

6	Hondakinen kudeaketako jarduera guztiak.
7	Aldi baterako instalazio edo egitura itxiak, ikuskizun publikoetarako eta jolas-jardueretarako erabiltzen direnak eta 200 pertsona baino gehiagorentzako lekua dutenak.
8	Hezkuntza-establezimendua, 28 m edo gehiagoko ebakuazio- altuera duena edo 50 pertsona edo gehiago sartzen direna.
9	Egoitza- edo aterpe- jarduerak dituzten establezimendu publikoak.
10	Kudeatutako garaje eta aparkalekurako lokalak, 500 m <sup>2</sup> -tik gorako azalera dutenak.